

bateraino bakarrik lortu du helburu hori; maila aski apalean, gainera. Horren errua ez dago noski kanpotikako erasoetan eta arduragabezian bakarrik ipintzerik (indar politikoetan edo sozialetan); EKBk bere okerrak eta hutsak egin ditueta esan behar da, euskalgintzako hainbat indar herritarren koordinazio nazional, guztiz zabala eta handia eratzeke gauza izan ez bada. Hortxe dago desafioa, barruko eta kanpoko eragozpenak gaindituz aurre egin eta irabazi beharrekoa.

Okerrak eta hutsuneak aztertzea eta zuzentzea izan zuen helburuetako bat 3. Batzarre nazionalak. Horren ondorioz proposatu zen, besteren artean, EKBrentzako Konfederazioaren egitura ere, geroztik eta hainbat elkarrizketa eta harremanen ondoren bideratu dena, eta zabaltzen ari dena.

Dena dela, azterketak eta autokritikak eta proposamen berriek etengabe funtzionatu behar dute mugimendu sozialaren erakuntzan; 1992ko Batzarre nazionalean bideraturikoek irekita jarraitzen dute. Era berean organizazio-formulak ere behin eta berriro egokitu beharrekoak dira.

Euskararen Aholku Batzodearen testamentua: Elebitasuna

Aurtengo ekainaren 4ean Euskararen Aholku Batzordeak, bere Osoko Bilkuran dokumentu bat onartu zuen, "Euskararen politikarako oinarritzko erizpideak" izenekoak. 1982an aldarrikaturiko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarritzko Legeak 10 urteak bete berriak ditu. Era berean, Batzordeak berak duela 10 urte argitara emandako Euskararen politikarako oinarriak gogoratuz dator oraingo agiri hau. Iragandako hamar urteetan euskararen normalkuntzaren bidean egindako urratsak aztertzeaz gain, aurrea begirako irizpideak eskaintzera dator dokumentua.

Une batean bere oihartzuna izan zuen arren, eztabaidarik ez du sortu gizartean. Erakundeetatik etorri da, ordea, nolabaiteko kontraproposamena. Gasteizko Kulturako Kontseilaria ez da agiriarekin ados nonbait, nahiz eta bera ere Aholku-Batzordekoa izan; azken aldian prentsan eta hitzaldi sonatu batean jaulkitako iritzia orain arteko hizkuntz politikaren oinarri azpia jatera etorri direla dirudi. Bien artean, berriro hizkuntz politikaren ardatzei buruzko gogoeta eta eztabaida gizarteratzeko eta bizkortzeko une guztiz garrantzizkoa da oraingoa.

Bere azken bilkuran onartu zuen agiria Aholku-Batzordeak. Laster agertu zen horren "suntsipen-dekretua", bertako partaide guztiak 'desizendatzen' zituena. Esan daiteke, beraz, Batzordearen testamentua izan dela dokumentua; gainera, dirudienez, ez da batere erraza izan horren sorrera. Agiria eta Batzordearen suntsipena, biak batera irakurri behar dira; nahiz eta agirian Batzordearen lanari eta etorkizunari buruz aipamenik ez egin.

Agiria ugaria eta zabala da ohar analitikotan eta iradokizunetan. Berorren luzean eta sakonean aztertzeke ez da iruzkin labur hau. Bertan nabarmentzen diren puntuen artean hemen ere nabarmentzekoak izan daitezke, hala ere, sakonkiago aztertu eta eztabaidatzea ere merezi dutelako: maila ezberdinetako erakunde publikoen hizkuntz

politiken koordinazioaren beharra, eta horretarako HPINek beharko lukeen artikulazio-eginkizuna -Idazkaritzaren eginkizunak zabaldu eta horren aginte politiko-instituzionala handitu beharra iradokitzen dela dirudi; "Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiari dagokion buruzagitza aitortu eta indartuz" ere esaten da halako batean -; herritarren partaidetza euskararen berreskurapen-politikan; transmisioaren lehentasuna hizkuntz plangintzan; plangintza orokorraren premia; euskarazko kultur baliapideen -kulturgintzaren- garrantzia: "Euskararen kultur tresna berriak sustatu eta era egituratuan lantzeari garrantzi handia eman behar zaio datozen urteetako politikan", agiriak dioenez.

Normalkuntzaren bidea urrun dagoela aitortuz abiatzen bada ere agiria; hala ere, azken urteotan egindako urratsei buruz baikortasun handiegia nabari du seguruenik, nahiz eta egindako bidearen mugak eta hutsak ere aipatzen dituen; dauden kritikak oso zeharka daude adierazita gehienetan eta hizkera 'zuhurregiak' estalita. Orohar, orain arte egindako politikaren berrespena da azken batez agiria; eta aurrerako egiten diren proposamenak orain artekoaren jarraibidezkoak dira funtsean. Horiek ez dute seguruenik beharrezko zehaztasunik, plangintza argirik markatzeko; ezta giharrik aski ere, benetan aurrerako fase koalitatiboki berria markatzeko, kandidantza eta kemen berri-tuan oinarriturikoa. Hau ez da agiriaren inolako deskalifikazio orokorrik; baina jakin beharrekoa da orain arte egindako bideari buruzko bestelako analisiak ere badaudela; eta, horren arabera, aurrerabiderako irizpide nagusietan bateratu arren, ildoak eta urratsak zehaztean proposamen ezberdinak agertuko direla.

Dena dela, "erakundeen eta herritarren arteko zentzuzko fidantza praktikoa indarberritzen lagundu nahi" omen du agiriak; eta, bestalde, irizpideetako adostasun praktikoa lortzeko tresna izan nahi du. Elkargune praktikoko horri heltzeko prest bagaude, elkarrizketa eta eztabaida sozialean lortu beharko da hori, eta elkarlanean egiaztatu. Hala ere, badaude aspalditik gatazka mingarriak, lehenbaitlehen irtenbidea eskatzen dutenak; eta gainera hizkuntz plangintzaren oinarriak (abiaburuak) eta helburuak berriro argitzea beharrezkoa izango da, horiei buruzko azpiko kontradikzioetan etengabe katramila ez gaitezen, eta elkargune praktikoa iraunkorra eta sendoa izango bada.

Bide horretatik, hain zuzen ere, agiriak luze tratatzen duen gai nagusietako bat aipatu nahi genuke hemen bereziki: Elebitasunarena. EKBk eta HPINek izandako elkarrizketa luzetan gai horixe izan baitzen solasgai nagusietako bat. Eta bertan "euskararen berreskurapen osoa" definitu baitzuten bien artean "Euskararen politikaren helburutzat", elebitasuna-elebakartasuna kontzeptuen dikotomia gainditzeko. "Euskararen normalkuntza da hizkuntz politikaren helburua: horrek euskararen berreskurapen osoa adierazi nahi du, lurralde osoan, maila pertsonalean, maila sozialean eta maila ofizialean", dago esanda alde biek onarturiko agirian.

"Elebitasun sustatzailea" da Aholku-Batzordearen ustez, EAEko hizkuntz politikaren helburua. "Gizarte elebiduna eraikitzea, hau da, elebidunez osatutako gizartea garatzea" esan nahi du elebitasunak, horren agiriak definitzen duenez; baina ez digu 'sustatzailea' hitzak zer esan nahi duen agertzen. Aholku-Batzordeak berak emaniko lehen agirian, "Euskararen politikarako oinarriak" hartan, "elebitasun osoa" markatzen zuen helburutzat: "Elebitasun osoa izanik Autonomi Elkarte Estatutuak helburu bezala finkatzen duena". 'Osotasunak' badu bere indarra; apaldu egin ote dira Estatutuaren beraren helburuak? Argitzeakoak lirateke bi kontzeptuen arteko ezberdintasuna eta

lotura.

Izatez, duela hamar urteko agiria, honako hau aitortzetik hasi zen: "Europar eta munduan honelako gizarte elebiduniez dago", elebitasun osoaren adieran. Hala ere, orduan eta orain helburutzat jartzen da elebitasuna Euskal Herrirako eta bertako hizkuntz politikarentzat... Ez dirudi plangintza errazionalerako eta errealerako abiapunturik egokiena helburu "utopikoa" ipintzea. Baina hor dago.

Bestalde, nola ulertu behar da "elebidunetz osotutako gizarte" hori Euskal Herrian? Batzumentzat euskara eta gaztelania menperatzea izango da; beste batzumentzat agian euskararen eta ingelesaren (edo alemanaren) jabe izatea; Buesa jaunarentzat gaztelania eta ingelesa menperatzea, dirudienez; iparraldekoentzat seguruenik euskara eta frantsesa ondo jakitea...

Egia esan, ez dirudi Euskal Herrirako -EAErako- hizkuntz politikaren helburua markatzea eta definitzea dagokionik zuzenean 'Euskararen' Aholku-Batzordeari. Euskararen normalkuntza eta horren helburua markatzea eta horren helburua markatzea eta definitzea dagozkio berari, izenak berak adierazten duenez; jakina, euskararen egoera diglosotik, hau da erdarekiko menpekotasunetik, abiatuz, eta Euskal Herriak behar duen hizkuntz politika orokorraren testuinguruan kokatuz. Euskararen sustapena da zuzenean alorra. Izan ere, Herri honetan euskaldun ia denok elebidunak gara; sarritan elebidun diglosotikoak; orduan helburua "elebidunetz osotutako gizarte eratzeara" baldin bada, horrek praktikan hauxe esan nahi du: erdaldunak euskalduntzea eta euskaldun ez osoak -alfabetatu gabeak eta- euskaldun oso bihurtzea; eta euskaldun osoen eran bizi ahal izateko gizarte eratzeara. Horri deitzen diogu euskararen berreskurapen osoa.

Orain, berriz, elebitasunaren erakargarritasuna eta alde onak gizartean predikatzeo eta agertzeo dei egiten zaie, horretarako gauza izan daitezkenei. "Elebitasunari buruzko egitasmoak eragin handiagoa izango du elebidun izatearen alde onak ezagutarazten badira, onuragarria dela herritarrei sentiarazten bazaie. Ikuspegi honetatik estimatzekoa izango da herri-erakundeetako arduradunek, alderdietako kargudunek, gizarteko buruzagiek, jakitun eta teknikariek, elebidun bezala sortarazi dezaketen irudi erakargarria".

Jakina, norbera hizkuntza bi, eta hiru hamar erabiltzeko gai izatea aberasgarria da. Laister hizkuntz bakarra dakiena -irakurtzen eta idazten ondo jakinik ere- analfabetotzat joko dela esan duenik ere bada. Eta seguruenik, gaztelania edota frantsesa ezezik, beste hizkuntzaren bat behintzat (ingelesa?) ikasi beharrean izango gara -orain bertan ez bagara- euskaldunok. Euskal Herrirako hizkuntz politika osoak hori ere kontutan eduki behar du.

Baina ez dirudi zuzenean hori definitzea dagokionik 'Euskararen' Aholku-Batzordeari. Horregatik etorri ote da agiriaren ondoren horren suntsipen legala? Egia esan, ez dakigu zergatik suntsitu duten; ezta berririk sortuko denik ere. Agian sumatzekoa da, agirian Hizkuntz Idazkaritzaren funtzioak eta agintea zabaltzea eta indartzea proposatzen den bezala, Aholku-Batzordearen funtzioa zabaldu eta horren eraketa aldatu beharra egotea orain artekoaren suntsipenaren atzetik. Agian bi 'proposamen' horietan txerriak txostenaren azpiko 'irizpide' berrietako eta eraginik handienetakoak aurrera

begira. Beharrezkoa litzateke guzti horren inguruko asmoak ezagutzea, dokumentua bera egoki interpretatu eta horren atzean dauden asmoan ezagutu ditzagan.

Euskara Elkarteei buruzko ihardunaldiak

Urriko azken asteburuan 150 lagun inguru bildu zituen Arrasateko AEDk euskara elkarteei buruzko ihardunaldietan. Bigarren aldia izan da euskara elkarteetako jendea elkartu eta arazo eta gai amankomunei buruz hitz egin ahal izan duena (lehendabiziko aldiz 1991ko urtarrilean EKBk antolatuta bi egunetako euskara mintegi bat egin zen Zarautzen). Bihoazkie, lehenik eta behin, zorionak antolatzaileei egin duten lanarengatik; herrietan lanean dihardutenen arteko topagunerik antolatzeko beharra bai baitzegoen, eta AEDk benetan txukun eratu ditu ihardunaldiok.

Partaidetza haundiaz gain, nabarmentzekoa da bertaratutakoen gogoia eta etorkizuneko erronkei ekiteko grina. Arrasaten ikusi ahal izan zen -norbaitek oraindik ikusia ez bazuen-, berezitasunak berezitasun, badela azken urteetan herriz herri zabaltzen eta sendogotzen datorren mugimendu bat, indar eta gogoberriturik, eta aurrera egiteko gaitasun haundiz gainera. Nolanahi ere, gure aldetik kezka bat mahaigaineratu nahi genuke: ez ote gara gehiegizko idealismoz eta autokritika gutxiegi aztertzen ari euskara elkarteen mugimendua? Herri askotako esperientzia ez da ihardunaldietan ulertzera eman den bezain positiboa, eta dauden arazo eta ezintasunak gainditzeko guztion artean soluziobide berriak aztertu ezean, une hauetan euskara elkarteen mugimendua gainbaloratu eta hemendik urte batzuetara bere emaitzengatik etsitzeko arriskutan gara.

Hitzaldiei dagokionez, esan dezagun txosten batzuk oso egoki azaldu zutela mugimendu osoaren aberastasuna. Beste batzuk ordea, AEDrengan zentratu ziren batez ere, eta horrek mugatu egin zituen neurri batean. Entzun genituen proposamenen artean bereziki azpimarratzekoa da Iñaki Arruti eta Fernando Muniozguerenek "Normalkuntzaindia" sortzeko luzatutakoa; gaiak izan du oihartzunik aski komunikabideetan, eta berak erreflexio atal oso bat merezi duenez, aldizkari honen hurrengo zenbakirako utziko dugu oraingoz. Aintzat hartzekoa litzateke, era berean, AEDko hizlari batek egindako proposamena: euskara elkarteen arteko lankidetzaren premia euskarak jasaten dituen erasoei aurre egiteko.

Hizlari zenbaiten partetik Euskal Herrian Euskaraz erakunde gutxiesteko ahalegina ez zitzaigun oso bidezkoa iruditu, batzuetan gainera, EHErena ezezik, herrietako euskara elkarteez aparte orain arteko beste edozein esperientziaren baliagarritasuna ukatzeko asmoa nabaritu baikeuen. Egia da, bestalde, EHEren hitzaldia oso teorikoa izan zela, eta ez zuela balio izan erakunde honek euskara elkarteei buruz duen iritzia azaltzeko.

Ihardunaldien metodologiari dagokionez, azken balorazioetan azpimarratu zen bezala, nabarmena izan zen gaiak hizlari eta entzuleen artean eztabaidatzeko denborarik eza, edo hobeki esateko, euskara elkarteetako partaideen artean esperientziak elkartrukatu eta sakontzeko aukera falta. Dirudienez hori lortzea ez zegoen ihardunaldien